


**UPV/EHUn irakasle-ikertzaile prekarizaturik EZ!**

UPV/EHU  
**Irakasle-ikertzaile partzialen esplotazioari, EZ!**



**<800 €/hilean**  
eta lanorduz gainezka!

LABen kezka larria dugu UPV/EHUko lanaldi partzialeko irakasle-ikertzaileen (IRI) lan-baldintza prekarioekiko. Gaur egun, UPV/EHUko 5.678 irakasle-ikertzailetatik, 955 kontratu partzial daude, %20a. Lanaldi partzialeko irakasleen hileko soldata 800 eurotik beherakoa da.

Partzialtasun horretan, irakasle asko ordaindutakoa baino askoz ordu gehiago sartzen ari zarete. Alegia, klaseak eta tutoretza ordaintzen dira, baina kudeaketa, formazioa, prestakuntza ez da ordaintzen. Eta ikerketa (egiten denean eta UPV/EHUren izenean argitaratzean) ez zaizue onartu ere egiten.

LAB-etik lan sakon bat egiten ari gara egoera hau aldatzeko. Mesedez zure egoera hau bada, edo iraganean bizi izan baduzu, naiz eta orain egoera hobean izan, **SALATU UPV/EHUren kontratu mota hau, inprimatu egin dugun [pegatina](#) hau eta jarri zure bulegoko atean.**

Eta egoera honetan aurkitzen bazara, idatzi e-mail honetara: [lab.gasteiz@ehu.eus](mailto:lab.gasteiz@ehu.eus) edo deitu 945 014 374 zenbakira, kaltetuen artean masa kritikoa sortu eta egoera hau aldatzeko.